

# Mitxelena eta gramatika

Patxi Goenaga

**M**itxelenak ez zuen gramatkarik idatzi, bai ordea gramatikaz eta gramatika gaiez, maisutasunez idatzi ere. Bere ikerketa alor nagusia hizkuntzaren historia aztertzea izan zen, uste baitzuen hizkuntza bat ulertzeko nahitaezkoa dela hizkuntzaren historia ere ezagutzea. Nolanahi ere, ugari dira gramatikaz zuzenean diharduten lanak eta ugariak halaber han-hemenka jaulkitako apunte eta ohar mamitsuak.

Alde honetatik, itxura xumea badute ere, aipagarriak egin zaizkit beti Villasanteren gramatika liburuetan ezarritako oin oharrak. Mitxelenaren 'apostilla' direlako haietan hainbat ohar jakingarri aurkitzen ahal ditu irakurleak, dela baldintza per-pausei buruz, dela subjuntibo delakoaren balioaz, per-paus osagarriez, zehargalderez, erlatiboez, ize-nordain posesiboez, alokutiboaren erabileraz, post-posizioez... Nolakoa izango zen errenteriarraren autoritatea, oharrok bere hartan utzi baitzituen liburuaren egileak, 'Michelena apostilla' soila erantsita! Esan dezadan, bidenabar, oharrok ez direla liburuaren alderdirik ahulena, ez horixe!

Horretaz aparte, berariaz gramatika gaiet buruzko artikuluak ere ez dira gutxi, dela morfologiari ("Notas sobre compuestos verbales vascos" adibidez) dela sintaxiaz, hitz ordenaz eta galdegai/mintzagai kontuez artikulua bat baino gehiago idatzi zituen, argiak eta albora ezin utzizkoak. Gramatikaren muina dira morfologia eta sintaxia. Hiztegia ere, gramatikaren parte dela onartuz gero, Mitxelenaren ekarria nabarmentzekoa da. Euskara batua bera, Mitxelenarik gabe ezin ulertzeko izango zatekeen. Haren itzalean eraiki zen euskara batu delako hori, euskaldunok harro sentitzeko hainbeste arrazoi ematen diguna.

## Mitxelena y la gramática

**P**ara conocer una lengua hay que conocer su historia, y a la lingüística histórica dedicó Mitxelena la mayor parte de su trabajo. No escribió ninguna gramática, pero su obra incluye referencias de alto valor a la gramática vasca, tanto directas como indirectas.

A pesar de su apariencia, son reseñables las notas con las que enriqueció los libros de gramática de Luis Villasante, quien no dudó en incluirlas, tal cual, con un sencillo 'Michelena apostilla'. Las oraciones condicionales, las relativas, los determinantes, los pronombres, etc. reciben el certero comentario del lingüista.



Gure arteko gramatika lanak ere (Azkuerena, Altuberena, Campionena...) hizpide hartu zituen behin baino gehiagotan, bere begi kritikoaz aztertuz. Bestalde, gramatika eta linguistika bide berriei ez zien muzin egin. Hainbat doktore tesiren zuzendari ere izan genuen.

Luze iharduteko aukerarik ez dudanez, Mitxelenaren hiruzpalau esaldi hartu nahi ditut, gure hizkuntzalariaren izaeraren zenbait alderdi argitzeko eta gogoetarako bide ematen dutenak.

“Galdegaia eta mintzagaia euskaraz” artikulua gogoangarrian bada esaldi bat, irakurleak oharkabea pasatzen utziko lukeena, egilearen beraren ohar bategatik ez balitz. Honela zioen testuak:

(puntu hori) tratatua izan bada ere, nik ez ditut gehienbat aurkitu bila nembiltzanak (*MEIG VI. Hizkuntzalaritzaz I*, 153. orr.).

Esaldi horri honako oinoharra eranstean dio:

Neronen hizkuntzari dagokionez, bada hemen (...) ikaragarritzko mustro bat: bila nembiltzanak, bila nembilenak edo dira. Ustekabean itzuri zitzaidan eta horrexegatik, mustro izateaz gainera, aditz kontuan sor ditzakegun saltsen mostra ere izan daitekeelakoan, bere hartan utzi dut. (166. orr.).

Komunztadura ‘faltsuak’ (uretara eroriko zirela uste nituen haurrak... modukoak) maiz gertatzen dira euskaraz. *Nembiltzanak* hau ospetsu egin da, nolahi ere. Baina zer erakusten digu honek? Adibide honek garbi uzten du egileak araua hautsi zuela, *nembiltzan* forma ez baita existitzen, *genbiltzan* ez bezala. Komunztadura faltsua, nolahi ere. Oharkabean itzuri zitzaion egileari, eta ohartu zelarik, zuzendu beharrean, bere horretan uztea erabaki zuen, goian jaso dugun azalpena emanaz, gramatika kontuetan ari den edozeinentzako, gure kasuan euskaldun guztiontzako, informazio gisa. Ustekabean itzuri zitzaiolako, horrexegatik, bere hartan uztea erabaki zuen. Harrezkero, perpaus erlatiboan azalpen askotan ageri da ohar hau. Hiztunok, hiztun garen heinean gramatika arauekin lan egiten dugu, oharkabean bada ere. Baina Mitxelenak ez du inolako lotsarik bere arau haustea aitortzeko, ez eta ere bere askatasunaz baliatuz, urratze hori bere buruari barkatzeko edo eta denon aurrean aitortzeko. Perpaus ez gramatikal bat, barneko

Pero escribió también trabajos monográficos sobre sintaxis y morfología. Son destacables los referidos al orden de palabras, por ejemplo, siempre llegando al meollo del problema, rehuyendo la trivialidad.

De sus manos no salió ninguna gramática, pero sí salió el euskera unificado, para cuyo diseño era necesario conocer bien la historia de la lengua y la gramática. Aparentemente, fijar la ortografía, el vocabulario, o la morfología podría parecer una labor sencilla. Pero para tomar decisiones entre diferentes alternativas, era imprescindible el conocimiento de los textos por un lado, y del uso actual, por otro. Era necesario, también, atraer la voluntad de la comunidad lingüística. No fue tarea sencilla la que asumió Mitxelena. ‘No se puede ordenar a nadie cosa que el que ordena no está dispuesto a cumplir, escribió al respecto. Y su estilo, efectivamente nos enseña mucho de la gramática del euskara estándar. Un modelo.

premia bati erantzunez sortua. Mitxelenaren keinu ‘bihurri’ bat nolahi ere, irakurle euskara-zaleari egina, gogoeta sustatzeko asmoz. Adibide hau gure errenteriarrek gramatika ikusteko moduaren erakusgarri litzateke. Maisu handiek bakarrik egin ditzaketean keinu ironiko horietako bat da eta gai zen bere buruaz ere barre egiteko, gramatika dibertigarri egiteko, nik uste. Mitxelenaren testuetan asko ikas daiteke eta bide askotatik, gainera.

Euskara batuaren saltsan nolatan sartu zen azaltzerakoan, honako baieztapen hau ere aurki dezakegu:

Eguzkiaren argia baino argiago agertzen zen norbaitek abiatu behar zuela eta, inor sartzekotan, nola egingo nion neronek uko deiarri. Hauxe da gerra aurretik, gerratean eta gerra ondoan ikasi dudana: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiokela besteri agin. (*Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 376).

Mitxelena buru-belarri sartu zen ‘batasungintzan’, ez mesede pertsonalen bat ikus zezakeelako, euskararekiko zuen erantzukizunagatik baizik. Hasierako langintza ortografia, morfologia eta hiztegira, gramatika gaietara nolahi ere, zuzendua

zen. Gaurko begiekin ikusita, ez du ematen lan bereziki zaila. Baina aukeren artean hautua egin beharrak, irizpideak ongi finkatu beharrak eta, gainera, jendearen adostasuna bilatu beharrak, azken honek, berez, gramatikarekin zerikusirik ez badu ere, hari-mutur gehitxo lotzea eskatzen zuen.

Baina itzul gaitezen atzera bigarren testura: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiok besteri agin. Maiz erabili izan dut nik neuk gramatika eskoletan. Esanahia garbi dago: zer-bait agintzen duenak berak ere agindua betetzeko prest egon behar. Hizkuntza kontuez ari garenez, honek esan nahi du arauok araugilearen hizkuntzan eta estiloan bertan islatu behar dutela. Eta hala da gure kasuan. Baina testu hau ikasleei aurkezten banien, erakusten duen jarrera etikoa azaltzeko ez ezik perpausaren egitura aurkitzeko asmoz aurkezten nien. Hasieran ez zen lan erraza gertatzen. Azkenerako, ordea, bazirudien perpaus horren funtsezko egitura harrapatzen zutela gehienek.

ca «una vez», «dos veces», «tres veces», etc. *Bat aldiz* —no es usual fuera de ciertas zonas—, *bi aldiz*, *hiru aldiz*, *lau aldiz*, etc. *Hainbeste aldiz* «tantas veces».

Algunos ejemplos de Axular con *aldi*:

- Ax 164 *Aldi hartakotz* «por aquella vez»
- Ax 69 *Lehenbiziko aldian* «en la primera vez»
- Ax 342 *Zenbait aldiz* «algunas veces»
- Ax 142 *Orai ene aldia da* «ahora es mi vez»
- Ax 86 *iende beken alditan* «en tiempo de aquellas gentes»

*Aldi* puede agregarse al adjetivo verbal: *Emanaldi*, *Edanaldi*, etc.:

- Ax 265 *Noe patriarka saindu hura horditu zen egun batez; eta harena etzen miretsteke, zeren lehenbiziko edanaldia baitzuen* «...pues era la primera vez [que bebía]»
- Ax 351 *lehenbiziko orratzta aldian* «al peinarse por primera [mera vez]»

Axular emplea *oraikotz* «por ahora», «por esta vez» (cf. Ax 212, 221, tit.)

Por «vez» en B se emplea también *bider*: *bi bider* (1), *hiru bider*, *lau bider* «dos veces», «tres veces», «cuatro veces». Pero *bider* no es un nombre, como lo es *aldi*. No puede declinarse. Es forma invariable. No recibe el artículo ni otros sufijos (2).

(1) *Bi bider*. Es curioso que el numeral *bi* «dos», que en el dialecto vizcaíno se pospone —*berba bi* «dos palabras»—, sólo cuando acompaña a *bider* se anteponga.

(2) Por eso la creación *bidertu* «multiplicar» (lit. *vecear*) es a todas luces extraña y contraria a la índole de la palabra *bider*. — **Michelena apostilla:** *Bider* es también guipuzcoano general y altonavarro hasta Oyarzun por lo menos: parece claro que tiene que ver con *bide* (caso declinado?). También dicen ahora *biderkatu*.


L. Villasanteren *Estudios de sintaxis vascan* Mitxelenak egin-dako "apostilla" sonatuetako bat.

Mitxelenaren obran, maiz aurkituko ditugu esaldi lauso samarrak itxuraz, baina hiztunarentzat, eta batez ere gramatikariarentzat, intentzio bihurritz gainezka datozenak. Honako hau bezala:

Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, ongi ala gaizki, hala nahiz honela mintzatzeak, (...) larru-azaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu (*Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 386).

Tarteka-tarteka, Mitxelenak beti eskaintzen digu keinuren bat edo beste euskal gramatikari buruzko gogoetarako gonbita egiten diguna. Nik behintzat, halakotzat hartu izan ditut goiko perpaus hori bezalakoak eta maiz saiatu naiz ikasleak ere gogoeta horretara eramaten.

Patxi Altunak, gramatikari peto-petoa eta Mitxelenaren miresle handia izan zenak "Euskararen batasun bideak" artikulua sarreran ezarritako hitzekin amaitu nahi dut lantxo hau: "lehor eta antzu samarra iritziko dio batek baino gehiagok txosten honi. Baina azkeneraino irakurtzen irauteko kemenik baldin badu, lehen ataletako lehorra gozo, eta antzua jori bihurtuko zaio azken atala irakurtzean. Hor adierazten baitigu, euskal prosak, gauzak emeki eta soilki esatekoak, nolako beharko lukeen izan". Hala uste dut nik ere.



Goiko Kalea. Antonio Valverde, *Ayalde*, 1958.